

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 3,9 milioi euro erabiliko du 2015ean garapenerako lankidetzalaguntzetarako

Bestalde, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluak 4,1 milioiko diru-laguntza deialdien hamar bat txosten onartu ditu

Martes, 11 de noviembre de 2014

Nafarroako Gobernuak 3.900.107 euro erabiliko du datorren urtean garapenerako lankidetzalaguntzetarako, Gizarte Politiken kontseilari Íñigo Allik gaur goizean ezagutzera eman duenez Nafarroako Garapenerako Lankidetzalaguntzaren Kontseiluko bilkuran. Alli bera izan da Iruñean egindako bilkura horren buru.



Alli kontseilaria Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluak egindako bilkuraren buru izan da.

Zehazki, zenbateko horren % 80 lankidetzalaguntza ekonomikoko proiektu nahiz programetan inbertituko da, % 11 giza ekintzetan, % 8 hezkuntzan herritarrak garatu eta sentsibilizatzeko, eta gainerako % 1 laguntza teknikoan.

Partiden arabera, 1.650.000 euro garapenerako urteko programetarako erabiliko da (epe ertain eta luzeari begira prestatutakoak), 1.472.865 euro garapenerako urteko proiektuetarako (urtebetekoa), 240.000 euro larrialdi espezializatuko ekintza humanitarioetarako, 200.000 euro Saharako errefuxiatuei elikagaietan laguntzeko, 182.242 euro arlo formala garatzeko hezkuntza-proiektuetarako, 40.000 euro formala ez den arloa garatzeko hezkuntzarako, 40.000 euro sentsibilizazio-ekintzetarako eta, azkenik, 75.000 euro ONGD Koordinakunderako (40.000 euro Eskola Solidarioen Sarea koordinatzeko eta 35.000 euro funtzionamenduko gastuetarako).

Alli kontseilariak ere kontsulta eta partaidetzako kide anitzeko organo horretako kideei aurtengo garapenerako lankidetzalaguntza-programaren urteko kudeaketa-memoria aurkeztu die; haren arabera, Nafarroako Gobernuak 3,8 milioi euroko diru-laguntza eman du arlo horri lotutako 42 esku-hartze egiteko (programak, proiektuak, laguntza humanitaria, hezkuntza, sentsibilizazioa...).

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua

Bestalde, Gizarte Politiken kontseilari Íñigo Alli ere Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluko bilkuraren buru izan da gaur asteartea,

azaroak 11, Iruñean.

Bilkuran zehar, organo horrek onetsi ditu, PFEZaren helburu sozialen % 0,7ko funtsarekin finantzaturako diru-laguntzei dagozkien txostenak. Guztira, hamar bat deialdi dira datorren urterako, 4,1 milioi guztira, honako hauei lotutako jarduerak finantzatzeko: desgaitasuna, adineko pertsonak, langabeak edo gutxiengo etnikoak, beste alor batzuen artean.

Zehazki, 1.739.820 euro desgaituak diren pertsonen arloko entitateen programak eta funtzionamendua diruz laguntzeko erabiliko da (kopuru horretatik, 830.820 euro % 0,7ko funtsak jartzen du, baina ez gainerakoa); 746.433 euro langabeen aldeko interes sozialeko programa komunitarioetarako; 470.000 euro gizarteratzeko eta gutxiengo etnikoak sustatzeko arloko proiektuetarako; 450.000 euro adinekoen elkarteak funtzionatzeko; 205.939 euro adineko elkarteen programetarako; 200.000 euro gizarteratzeko etxebizitza-programan laguntzen duten erakundeetarako; 125.000 euro programak boluntariora sozialeko arloan egiten dituzten zerbitzu sozialen erakundeetarako; 115.954 adingabea babesteko arloan lan egiten duten erakundeetarako eta 90.000 euro bizitza independenteari laguntzeko programa kudeatzeko.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluak ere aldeko txostenak egin ditu, alde batetik, Gizarte Zerbitzuen Lehen Mailako Arretako Koordinazio Batzordea arautzen duen foru-aginduko proiektuari buruz, eta bestetik, zerbitzuari lotutako prestazioen gehieneko zenbatekoen aldaketari buruz, egoera berezietan, hau da, mendeko pertsona bati arreta-zerbitzua emateko kostua finantzatzen laguntzeko emandako diru-laguntzak Nafarroako Gobernuak zerbitzu publiko baterako edo itundutako baterako sarbidea izateko aukerarik ez daogonean.